

<b>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU-BATZARRAK 2018KO EKAINAREN 5EAN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</b>	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 5 DE JUNIO DE 2018.</b>
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi jn.

<u>BATZARKIDEAK</u>	<u>V O C A L E S</u>
---------------------	----------------------

Keltse Eiguren Alberdi And.  
Joseba Arregui Martínez Jn.  
Álvaro González Pérez Jn.  
Elena Coria Yanguas And.  
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.  
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.  
Jose Luis Landa Arteche Jn.

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
-------------------------	---------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazortziko ekainaren bostean, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotzietz gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a cinco de junio de dos mil dieciocho, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el

dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

242.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO MAIATZAREN 29AN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2018ko maiatzaren 29ko bilerakoa, hain zuzen.

OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA

243.- GETXOAKTIBATU PROIEKTUA (2. LOTEA: KOMERTZIOETAN ETA OSTALARITZAN ESTABLEZIMENDUEN ETA PROFESIONALEN EKITALDIAK KUDEATZEKO EKINTZAK) KUDEATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZUAK LUZATZEA.

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: URTEBETEZ luzatuko da, 2018-07-10etik 2019-07-09ra (lehenengo luzapena eta bakarra), MANITU COMUNICACIÓN SL enpresarekin (IFK: B-95891248), GETXOAKTIBATU PROIEKTUA KUDEATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZUAK, 2. lotea: KOMERTZIOETAN ETA OSTALARITZAN ESTABLEZIMENDUEN ETA PROFESIONALEN EKITALDIAK KUDEATZEKO EKINTZETARAKO

Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

242.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 29 DE MAYO DE 2018.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 29 de mayo de 2018.

HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA

243.- PRÓRROGA DE LOS SERVICIOS DE GESTIÓN Y ORGANIZACIÓN DEL PROYECTO GETXOAKTIBATU, LOTE 2: ACCIONES RELACIONADAS CON LA GESTIÓN DE ACTOS Y EVENTOS DE LOS ESTABLECIMIENTOS Y PROFESIONALES EN LOS COMERCIOS Y LA HOSTELERÍA.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO desde el 10/07/2018 al 09/07/2019 (primera y única prórroga), la vigencia del contrato suscrito con MANITU COMUNICACIÓN, S.L. con CIF: B-95891248 para los SERVICIOS DE GESTIÓN Y ORGANIZACIÓN DEL PROYECTO GETXOAKTIBATU, Lote 2: ACCIONES RELACIONADAS CON LA GESTIÓN DE ACTOS Y EVENTOS DE LOS ESTABLECIMIENTOS Y PROFESIONALES EN LOS COMERCIOS Y LA HOSTELERÍA, por

sinatutako kontratuaren indarraldia, zenbateko honen truke: 14.450 eurotan, gehi % 21eko BEZaren 3.034,50 euro.

BIGARRENA: 14.450 euroko beharrezko gastua baimendu eta xedatzea, gehi BEZaren % 21ari dagozkion 3.034,50 euro, erreferentziarako kontratua luzatzeko gastuak ordaintzeko.

**244.- NORAKOAREN LEHIAKORTASUNA ETA KALITATEA HOBETZEN DUTEN PROIEKTUAK BABESTEKO ZERBITZU TEKNIKOA ADJUDIKATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

**Lehenengoa.-** IKER FERNÁNDEZ CONSULTING, S.L. enpresari, IFK B95756482, esleituko zaio HELMUGAREN LEHIAKORTASUNA ETA KALITATEA HOBETZEKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO LAGUNTZAZKO ZERBITZU TEKNIKOA, ondoren zehazten diren prezioak kontutan hartuz:

**Sorta: SICTED - XEDEETAKO TURISMO KALITATEKO OSOKO SISTEMA - EZARTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA.**

Gehienezko aurrekontua 52.100€koa (BERROGEITA HAMABI MILA BERREHUN eurokoa) izango da, %21eko BEZa barne. Urtero 26.050€ (HOGEITA SEI MILA eta BERROGEITA HAMAR euro).

Hurrengo banakako prezioagatik:

importe de 14.450.-€, más 3.034,50.-€ correspondientes al 21% de IVA.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 14.450.-€, más 3.034,50.-€ correspondientes al 21% de IVA para hacer frente a los gastos de prorrogar los servicios de referencia.

**244.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO TÉCNICO DE APOYO PARA LOS PROYECTOS QUE MEJOREN LA CALIDAD Y LA COMPETITIVIDAD DEL DESTINO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

**Primero.-** Adjudicar a la empresa IKER FERNÁNDEZ CONSULTING, S.L., con CIF B95756482, el SERVICIO TÉCNICO DE APOYO PARA LOS PROYECTOS QUE MEJOREN LA CALIDAD Y LA COMPETITIVIDAD DEL DESTINO, por los precios que se señalan a continuación:

**Lote 1: APOYO TÉCNICO PARA LA IMPLANTACIÓN DEL PROGRAMA SICTED - SISTEMA INTEGRAL DE CALIDAD TURÍSTICA EN DESTINOS.**

Hasta un presupuesto máximo de 52.100€ (CINCUENTA Y DOS MIL CIEN euros), IVA del 21% incluido, a razón de 26.050€ (VEINTISÉIS MIL CINCUENTA euros) anuales.

Y por el siguiente precio unitario:

Prezioa/orduro: 30€ (HOGEITA HAMAR euro), gehi 6,30€ (SEI euro eta HOGEITA HAMAR zentimo), %21eko BEZari dagozkionak.

Precio/hora: 30€ (TREINTA euros), más 6,30€ (SÉIS euros y TREINTA céntimos), correspondientes al 21% de IVA.

**2. Sorta: IKTEN JARDUNBIDE EGOKIAK PROGRAMA EZARTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA.**

**Lote 2: APOYO TÉCNICO PARA LA IMPLANTACIÓN DEL PROGRAMA DE BUENAS PRÁCTICAS EN EL USO DE LAS TIC.**

Gehienezko aurrekontua 52.100€koa (BERROGEITA HAMABI MILA BERREHUN eurokoa) izango da, %21eko BEZa barne. Urtero 26.050€ (HOGEITA SEI MILA eta BERROGEITA HAMAR euro).

Hasta un presupuesto máximo de 52.100€ (CINCUENTA Y DOS MIL CIEN euros), IVA del 21% incluido, a razón de 26.050€ (VEINTISÉIS MIL CINCUENTA euros) anuales.

Hurrengo banakako prezioagatik:

Y por el siguiente precio unitario:

Prezioa/orduro: 30€ (HOGEITA HAMAR euro), gehi 6,30€ (SEI euro eta HOGEITA HAMAR zentimo), %21eko BEZari dagozkionak.

Precio/hora: 30€ (TREINTA euros), más 6,30€ (SÉIS euros y TREINTA céntimos), correspondientes al 21% de IVA

Kontratua gauzatzeko epea 2 (BI) URTEKOA izango da, kontratua sinatzen denetik aurrera zenbatuta. Kontratuak segidako URTEBETEKO BI (2) luzapen izan ahalko ditu. Kontratuak ezin izango du LAU (4) urte baino gehiago iraun.

El plazo de ejecución del contrato será de 2 (DOS) AÑOS, a contar desde la fecha de la firma del mismo. El contrato será prorrogable por DOS (2) periodos sucesivos de UN (AÑO) cada uno, sin que pueda la duración total del contrato exceder de los CUATRO (4) años.

**Bigarrena.-** Adjudikaziodunak kontratazio-zerbitzuko bulegoetara (Foruen kalea, 8) joan beharko du kontratua administrazioko agirian formalizatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bat eginaren 156.1. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz; hori egiteko, hamabost laneguneko epea izango du, gehienez ere, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

**Segundo.-** El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

**Hirugarrena.-** Ebazpen honen berri

**Tercero.-** Notificar la presente

IKER FERNÁNDEZ CONSULTING, S.L. enpresari ematea. Turismo Bulegoko Teknikariak 2018/03/26an igorritako txostenaren kopia bat helaraziko zaio ere.

resolución a la empresa IKER FERNÁNDEZ CONSULTING, S.L., así como una copia del informe de fecha 26/03/2018 de la Técnica de la Oficina de Turismo.

**245.- PUNTA BEGOÑAKO GALERIETAKO ZURAJEA ERABERRITZEKO PROIEKTUA ONESTEKO, ADJUDIKATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA BAIMENTZEKO, PLEGUAK ONESTEKO ETA GASTUA BAIMENTZEA.**

**245.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE RESTAURACIÓN DE LAS CARPINTERÍAS DE MADERA DE LAS GALERÍAS PUNTA BEGOÑA, INICIO DEL EXPEDIENTE PARA SU ADJUDICACIÓN, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: PUNTA BEGOÑAKO GALERIEN EGURREZKO ZURAJEAK ZAHARBERRITZEKO OBRAREN proiektua onestea. Proiektuaren aurrekontua 170.091,93 eurokoa da (BEZa barne) eta burutzeko epea, berriz, 4 (lau) hilabetekoa, gehienez, obraren zuinketa egiaztatzeko akta ematen denetik aurrera zenbatzen hasita.

PRIMERO: Aprobar el Proyecto de la OBRA DE RESTAURACIÓN DE LAS CARPINTERÍAS DE MADERA DE LAS GALERÍAS DE PUNTA BEGOÑA, cuyo Presupuesto asciende 170.091,93 euros, I.V.A. incluido y su plazo de ejecución será como máximo de 4 (cuatro) meses, a contar desde el Acta de Comprobación de Replanteo.

BIGARRENA: Aipatutako obra adjudikatzeko izapidea hastea baimentzea, prozedura ireki eta sinpletuaren bitartez.

SEGUNDO: Autorizar el inicio de la tramitación, por el Procedimiento Abierto simplificado, para la adjudicación de la obra de referencia.

HIRUGARRENA: Administrazio-kontratazioa eraendu behar duten administrazio-klausula berezi eta teknikoaren pleguak onestea.

TERCERO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

LAUGARRENA: Aipatutako kontratazioak dakartzan betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 170.091,93 eurotan.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación citada, por importe de 170.091,93 euros.

BOSGARRENA: Kontratuaren

QUINTO: Nombrar responsable del

arduradun izendatuko da Urko Balizskueta udal arkitektoa, SPKLaren 62. artikulutik eratortzen diren ondorio legeletarako, eta manu horrek obrako zuzendari teknikoari esleitzen dion erantzukizuna gorabehera.

**246.- ARRIGUNAGAKO LANDAREN INGURUAN EGINDAKO LANEN KONTRATAZIOA BERRESTEA, PREMIAZKO IZAPIDEAREN BIDEZ.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: Arrigunagako zelaiaren inguruan egindako lanen kontratazioa berrestea, SPKLaren 120. artikuluan ezarritako larrialdiko izapidearen bidez egina. Lan horiek proposamen honen lehenengo aurrekarian aipatzen dira; berehalako izaeraz erabaki ziren, arlo horretan segurtasuna berrezartzeko helburuarekin.

BIGARRENA: "Instrumentación Geotécnica Lur" rentzat, B95736245 IFK, 12.255 euroko gastua bamendu eta xedatzea, premiaz egin dituen lanengatik.

**247.- DIRU-LAGUNTZEN 1. LERROAREN EBAZPENA ONESTEA UDALERRIKO EKONOMIA DINAMIZATZEKO, 2018. URTEA.**

Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Giza Baliabideetako Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau

contrato al arquitecto municipal, Urko Balizskueta, a los efectos legales que se deriven del artículo 62 de la LCSP y sin perjuicio de la responsabilidad que dicho precepto atribuye al Director/a Facultativo/a de la obra.

**246.- RATIFICACIÓN DE LA CONTRATACIÓN, POR TRÁMITE DE EMERGENCIA, DE LOS TRABAJOS ACOMETIDOS EN LA ZONA DE LA CAMPA DE ARRIGUNAGA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Ratificar la contratación, por el trámite de emergencia previsto en el artículo 120 de la LCSP, de los trabajos acometidos en la zona de la campa de Arrigunaga, que se citan en el antecedente primero de esta propuesta, acordados directamente con carácter inmediato en aras a restablecer la seguridad del dicho área.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto de 12.255 euros en favor de la entidad "Instrumentación Geotécnica Lur", con C.I.F. nº B95736245, por los trabajos ejecutados por la misma con carácter de emergencia.

**247.- APROBACIÓN DE LA RESOLUCIÓN DE SUBVENCIONES DE LA LÍNEA 1 PARA LA DINAMIZACIÓN ECONÓMICA DEL MUNICIPIO, AÑO 2018.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos, se

hartu da:

1.) I. eranskinean zerrendatutako onuradunei diru-laguntzak ematea onartzea.

2.) Aurkeztutako eskaerak ukatzea, txosten teknikoan nahiz proposamen honen I. eranskinean zehaztutako arrazoiengatik.

3.) 200.000,00 euroko (BERREHUN MILA EURO) gastua xedatzea II. eranskinean zerrendatutako elkarteei diru-laguntza ordaintzeko.

4.) III. eranskinean zerrendatutako erakundeei 67.500,00 € (HIRUROGEHI TA ZAZPI MILA BOST EHUN EURO) ordaintzeko beharra onartzea, % 75eko lehen ordainketari dagokiona, dokumentazio egokia aurkeztu ostean.

Diru-laguntzaren zenbatekoaren gainerako %25 dagokion azken ordainketa, deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betearazten diren egiaztapenaren mende geratzen da.

Honekin batera gehitzen den txosten teknikoan oinarritzen da Getxoko udalerriko ekonomia dinamizatzeko diru-laguntzak emateko udal programaren barnean emandako diru-laguntzen ebazpen hau.

acordó:

1º) Aprobar la concesión de subvenciones a favor de los/as beneficiarios/as que se relacionan en el Anexo I .

2º) Denegar las solicitudes presentadas, por los motivos detallados en el Informe Técnico así como en el Anexo I de la presente propuesta.

3º) Disponer el gasto por un importe total de 90.000,00 € (NOVENTA MIL EUROS) para el abono del total de subvenciones a favor de las asociaciones que se relacionan en el Anexo II.

4º) Reconocer la obligación a favor de las entidades que se relacionan en el Anexo III por un importe total de 67.500,00 € (SESENTA Y SIETE MIL QUINIENTOS EUROS) correspondiente al primer pago del 75 %, una vez presentada la documentación pertinente.

El pago final, correspondiente al 25% restante de la cuantía de la subvención, queda supeditado a la comprobación del cumplimiento de los requisitos exigidos en las bases de la convocatoria.

Se adjunta informe técnico que fundamenta la presente resolución de subvenciones concedidas dentro del programa municipal de concesión de subvenciones para la dinamización económica del municipio de Getxo.

**I. ERANSKINA / ANEXO I**

<i>Emandakoa/Ukatutakoa</i> Concedida/ Denegada	<i>Erakundea/ Entidad</i>	<i>IFK /CIF</i>	<i>Eskaeraren</i> <i>aurkezpen-data</i> Fecha presentación de solicitud	<i>Diru-laguntzaren</i> <i>zenbatekoa</i> Cuantía de la subvención	<i>Ukatzearen arrazoiak/</i> Motivo de la denegación
<b>1. LERROA</b> <b>LÍNEA 1</b>					
<i>Emandakoa</i> Concedida	Getxo Empresarial y Comercial – Getxo Enpresa	G48204655	28/02/2018	77.042,40 €	
<i>Emandakoa</i> Concedida	Asoc. Algortako Dendak Elkartea	G95837878	28/02/2018	12.957,60 €	
<i>Ukatutakoa</i> Denegada	Asociación de hostelería de Getxo -Asohge	G95856845	28/02/2018	0 €	No llega a la puntuación mínima requerida en las bases específicas de la línea 1 para obtener ayuda.

1. *Lerroa. Xehetasuna /Detalle. Línea 1:*

<b>GETXO ENPRESA</b>		<b>ALGORTAKO DENDAK</b>	
Getxo bono	40.000,00€	Exposición Fotográfica social	2.692,00€
Rasca y Gana en Getxo	12.000,00€	Descubre y Gana	3.588,00€
Black Friday	11.840,00€	Compra en el pueblo	4.508,00€
Proyecto Navideño de dinamización	5.760,00€	Concurso contra la violencia de género	2.169,60



Akta/5cta 21/18  
T.Gob.B. 2018.06.5/Gob.L.5.06.2018

Concurso de escaparates	7.442,40€			
	<b>77.042,40€</b>			<b>12.957,60€</b>

—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—

**II. ERANSKINA / ANEXO 2**

<i>Erakundea / Entidad</i>	<i>IFK / CIF</i>	<i>Bankuko kontua / Cuenta bancaria</i>	<i>Diru-laguntzaren zenbatekoa / Cuantía de la subvención</i>
<b>1. LERROA / LINEA 1</b>			
Getxo Empresarial y Comercial – Getxo Enpresa	G48204655	ES50 3035 0108 0010 8000 5505	77.042,40€
Asoc. Algortako Dendak Elkartea	G95837878	ES68 3035 0246 4824 6001 3668	12.957,60€

—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—

**III. ERANSKINA / ANEXO 3**

<i>Erakundea / Entidad</i>	<i>IFK / CIF</i>	<i>Bankuko kontua / Cuenta bancaria</i>	<i>Diru-laguntzaren zenbatekoa % 75 / Cuantía de la subvención 75%</i>
<b>1. LERROA / LINEA 1</b>			
Getxo Empresarial y Comercial – Getxo Enpresa	G48204655	ES50 3035 0108 0010 8000 5505	57.781,80€
Asociación Algortako Dendak Elkartea	G95837878	ES68 3035 0246 4824 6001 3668	9.718,20€

—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—  
—

**248.- DIRU-LAGUNTZEN 2.  
LERRAREN EBAZPENA ONESTEA  
UDALERRIKO EKONOMIA  
DINAMIZATZEKO, 2018. URTEA.**

Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Giza Baliabideetako Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

1.) I. eranskinean zerrendatutako onuradunei diru-laguntzak ematea onartzea.

2.) Aurkeztutako eskaerak ukatzea, txosten teknikoan nahiz proposamen honen I. eranskinean zehaztutako arrazoiengatik.

3.) 28.728,77 euroko gastua xedatzea II. eranskinean zerrendatutako elkarteei diru-laguntza ordaintzeko.

4.) III. eranskinean zerrendatutako erakundeei 21.546,58 € ordaintzeko beharra onartzea, % 75eko lehen ordainketari dagokiona, dokumentazio egokia aurkeztu ostean.

Diru-laguntzaren zenbatekoaren gainerako % 25i dagokion azken ordainketa, deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betearazten diren egiaztapenaren mende geratzen da.

Honekin batera gehitzen den txosten teknikoan oinarritzen da Getxoko udalerriko ekonomia dinamizatze

**248.- APROBACIÓN DE LA  
RESOLUCIÓN DE SUBVENCIONES  
DE LA LÍNEA 2 PARA LA  
DINAMIZACIÓN ECONÓMICA  
DEL MUNICIPIO, AÑO 2018.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos, se acordó:

1º) Aprobar la concesión de subvenciones a favor de los/as beneficiarios/as que se relacionan en el Anexo I.

2º) Denegar las solicitudes presentadas, por los motivos detallados en el Informe Técnico así como en el Anexo I de la presente propuesta.

3º) Disponer el gasto por un importe total de 28.728,77€ para el abono del total de subvenciones a favor de las asociaciones que se relacionan en el Anexo II.

4º) Reconocer la obligación a favor de las entidades que se relacionan en el Anexo III por un importe total de 21.546,58 € correspondiente al primer pago del 75 %, una vez presentada la documentación pertinente.

El pago final, correspondiente al 25% restante de la cuantía de la subvención, queda supeditado a la comprobación del cumplimiento de los requisitos exigidos en las bases de la convocatoria.

Se adjunta informe técnico que fundamenta la presente resolución de subvenciones concedidas dentro del



**I. ERANSKINA / ANEXO I**

<i>Emandakoa/Ukatutakoa</i> Concedida/ Denegada	<i>Erakundea/</i> Entidad	<i>IFK /</i> CIF	<i>Eskaeraren aurkezpen-data</i> Fecha presentación de solicitud	<i>Diru-laguntzaren zenbatekoa</i> Cuantía de la subvención	<i>Ukatzearen arrazoa/</i> Motivo de la denegación
<b>1. LERROA LINEA 2</b>					
<i>Emandakoa</i> Concedida	GETXO WELL-BEING HUB. Asociación Emakumeekin	G95713269	28/02/2018	15.000,00 €	
<i>Ukatutakoa</i> Denegada	PROGRAMAS DE PROFESIONALIZACIÓN DEL SECTOR MUSICAL EN LA RADIO. Asociación STEREOSONIK	G95841565	28/02/2018	-	Sin subvención No alcanza la puntuación mínima requerida/Ez du puntuen gutxieneko atalaserá heldzen
<i>Ukatutakoa</i> Denegada	Jornada sobre "La competencia en el sector del Turismo Activo". AKTIBA, Asociación de empresas de Turismo Activo de Euskadi.	B95350757	27/02/2018	-	Sin subvención No alcanza la puntuación mínima requerida/Ez du puntuen gutxieneko atalaserá heldzen
<i>Emandakoa</i> Concedida	Jornada de promoción de la actividad económica de los ámbitos estratégicos turísticos del municipio de Getxo a través de las agencias receptoras vascas socias de ATRAE. Agencias turísticas receptoras asociadas de Euskadi..	G95793048	28/02/2018	13.728,77 €	

**II. ERANSKINA / ANEXO 2**

<b>Erakundea / Entidad</b>	<b>IFK / CIF</b>	<b>Bankuko kontua / Cuenta bancaria</b>	<b>Diru-laguntzaren zenbatekoa / Cuantía de la subvención</b>
<b>2. LERROA / LINEA 2</b>			
GETXO WELL-BEING HUB. Asociación Emakumeekin	G95713269	ES20 0081 7515 6200 0114 2825	15.000,00 €
Jornada de promoción de la actividad económica de los ámbitos estratégicos turísticos del municipio de Getxo a través de las agencias receptoras vascas socias de ATRAE. Agencias turísticas receptoras asociadas de Euskadi..	G95793048	ES86 2095 0551 6091 1463 3989	13.728,77 €

**III. ERANSKINA / ANEXO 3**

<b>Erakundea / Entidad</b>	<b>IFK / CIF</b>	<b>Bankuko kontua / Cuenta bancaria</b>	<b>Diru-laguntzaren zenbatekoa % 75 / Cuantía de la subvención 75%</b>
<b>2. LERROA / LINEA 2</b>			
GETXO WELL-BEING HUB. Asociación Emakumeekin	G95713269	ES20 0081 7515 6200 0114 2825	11.250,00€
Jornada de promoción de la actividad económica de los ámbitos estratégicos turísticos del municipio de Getxo a través de las agencias receptoras vascas socias de ATRAE. Agencias turísticas receptoras asociadas de Euskadi..	G95793048	ES86 2095 0551 6091 1463 3989	10.296,58



**249.- DIRU-LAGUNTZEN 4.  
LERROAREN EBAZPENA ONESTEA  
UDALERRIKO EKONOMIA  
DINAMIZATZEKO, 2018. URTEA.**

Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Giza Baliabideetako Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

1.) I. eranskinean zerrendatutako onuradunei diru-laguntzak ematea onartzea.

2.) Aurkeztutako eskaerak ukatzea, txosten teknikoan nahiz proposamen honen I. eranskinean zehaztutako arrazoiengatik.

3.) Bertan behera uztea bai txosten teknikoan bai proposamen honetako I. eranskinean adierazten diren eskaerak

4.) 33.000,00 euroko gastua xedatzea II. eranskinean zerrendatutako onuradunei diru-laguntza ordaintzeko.

5.) III. eranskinean zerrendatutako erakundeei 24.750,00 € ordaintzeko beharra onartzea, % 75eko lehen ordainketari dagokiona, dokumentazio egokia aurkeztu ostean.

Diru-laguntzaren zenbatekoaren gainerako % 25i dagokion azken ordainketa, deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betearazten diren egiaztapenaren mende geratzen da.

**249.- APROBACIÓN DE LA  
RESOLUCIÓN DE SUBVENCIONES  
DE LA LÍNEA 4 PARA LA  
DINAMIZACIÓN ECONÓMICA  
DEL MUNICIPIO, AÑO 2018.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos, se acordó:

1º) Aprobar la concesión de subvenciones a favor de los/as beneficiarios/as que se relacionan en el Anexo I.

2º) Denegar las solicitudes presentadas, por los motivos detallados en el Informe Técnico así como en el Anexo I de la presente propuesta.

3º) Dar por desistidas las solicitudes indicadas tanto en el informe técnico como en el Anexo I de la presente propuesta.

4º) Disponer el gasto por un importe total de 33.000,00€ para el abono del total de subvenciones a favor de los y las beneficiarias que se relacionan en el Anexo II.

5º) Reconocer la obligación a favor de las entidades que se relacionan en el Anexo III por un importe total de 24.750,00 € correspondiente al primer pago del 75 %, una vez presentada la documentación pertinente.

El pago final, correspondiente al 25% restante de la cuantía de la subvención, queda supeditado a la comprobación del cumplimiento de los requisitos exigidos en las bases de la convocatoria.



**I. ERANSKINA / ANEXO I**

<b><i>Emandakoa/Ukatutakoa / Uko egin du</i></b> Concedida/ Denegada / Renuncia	<b><i>Onuraduna/</i></b> Beneficiario	<b><i>IFK /</i></b> CIF	<b><i>Eskaeraren aurkezpen-data</i></b> Fecha presentación de solicitud	<b><i>Diru-laguntzaren zenbatekoa</i></b> Cuantía de la subvención	<b><i>Arrazoa/</i></b> Motivo
<b>4. LERROA LINEA 4</b>					
<i>Ukatutakoa</i> Denegada	Leire Apraiz	16052936 V	20/02/2018	0,00 €	<i>Aurrekontu baliabideak ez dira nahikoak izan/</i> Disponibilidad presupuestaria insuficiente.
<i>Ukatutakoa</i> Denegada	Exquissitum Gourmet	J 95740866	23/02/2018	0,00 €	<i>Aurrekontu baliabideak ez dira nahikoak izan/</i> Disponibilidad presupuestaria insuficiente.
<i>Emandakoa</i> Concedida	Tarpoon SUB, S.L.	B 48936744	27/02/2018	4.000,00 €	
<i>Emandakoa</i> Concedida	Hotel Los Tamarises, S.L.	B 48153852	27/02/2018	3.573,00 €	
<i>Emandakoa</i> Concedida	Javier Gutiérrez	22715655 G	27/02/2018	4.000,00 €	
<i>Emandakoa</i> Concedida	Txirimiri S.L. (As de Guía)	B 48460844	27/02/2018	3.912,88 €	
<i>Emandakoa</i> Concedida	Polaris Marine Services, S.L.	B 95826442	27/02/2018	3.509,44 €	
<i>Emandakoa</i> Concedida	Escuela Náutica de Recreo Arriluze, S.L.	B 95590675	27/02/2018	3.493,65 €	
<i>Emandakoa</i>	Marmitako Sailing, S.L.	B 95910493	27/02/2018	4.000,00 €	

Concedida					
<i>Uko egin du / Renuncia</i>	El Transbordador de Vizcaya, S.L.	B 48791818	28/02/2018	0,00 €	<i>Uko egin du / Renuncia</i>
<i>Uko egin du / Renuncia</i>	Fore Work, S.L. (Sailing & Wine)	B 95345666	28/02/2018	0,00 €	<i>Uko egin du / Renuncia</i>
<i>Emandakoa Concedida</i>	Gaikerta Cruising, S.L.	B 95668471	28/02/2018	2.511,03 €	
<i>Emandakoa Concedida</i>	Ropetea, S.L.	B 95901302	28/02/2018	4.000,00 €	

## II. ERANSKINA / ANEXO 2

<b>Erakundea / Entidad</b>	<b>IFK / CIF</b>	<b>Bankuko kontua / Cuenta bancaria</b>	<b>Diru-laguntzaren zenbatekoa / Cuantía de la subvención</b>
<b>4. LERROA / LINEA 4</b>			
Tarpoon SUB, S.L.	B 48936744	ES71 3035 0108 0910 8004 2807	4.000,00 €
Hotel Los Tamarises, S.L.	B 48153852	ES70 2100 3885 1202 0008 9594	3.573,00 €
Javier Gutiérrez	22715655 G	ES47 2100 1974 1002 0010 2721	4.000,00 €
Txirimiri S.L. (As de Guía)	B 48460844	ES83 2095 0047 8191 0064 1811	3.912,88 €

Akta/5cta 21/18  
T.Gob.B. 2018.06.5/Gob.L.5.06.2018

Polaris Marine Services, S.L	B 95826442	ES34 0049 5560 1129 1603 6024	3.509,44 €
Escuela Náutica de Recreo Arriluze, S.L.	B 95590675	ES89 3035 0421 4142 1003 0868	3.493,65 €
Marmitako Sailing, S.L.	B 95910493	ES14 2100 2422 8102 0010 3529	4.000,00 €
Gaikerta Cruising, S.L.	B 95668471	ES27 3035 0196 7419 6003 3303	2.511,03 €
Ropetea, S.L.	B 95901302	ES91 2048 2028 7134 0005 2349	4.000,00 €

**III. ERANSKINA / ANEXO 3**

<b>Erakundea / Entidad</b>	<b>IFK / CIF</b>	<b>Bankuko kontua / Cuenta bancaria</b>	<b>Diru-laguntzaren zenbatekoa %75/ Cuantía de la subvención 75%</b>
<b>4. LERROA / LINEA 4</b>			
Tarpoon SUB, S.L.	B 48936744	ES71 3035 0108 0910 8004 2807	3.000,00 €
Hotel Los Tamarises, S.L.	B 48153852	ES70 2100 3885 1202 0008 9594	2.679,75 €
Javier Gutiérrez	22715655 G	ES47 2100 1974 1002 0010 2721	3.000,00 €
Txirimiri S.L. (As de Guía)	B 48460844	ES83 2095 0047 8191 0064 1811	2.934,66 €
Polaris Marine Services, S.L	B 95826442	ES34 0049 5560 1129 1603 6024	2.632,08 €
Escuela Náutica de Recreo Arriluze, S.L.	B 95590675	ES89 3035 0421 4142 1003 0868	2.620,24 €
	B 95910493	ES14 2100 2422 8102 0010 3529	3.000,00 €

**Akta/5cta 21/18**  
**T.Gob.B. 2018.06.5/Gob.L.5.06.2018**

Marmitako Sailing, S.L.			
Gaikerta Cruising, S.L.	B 95668471	ES27 3035 0196 7419 6003 3303	1.883,27 €
Ropetea, S.L.	B 95901302	ES91 2048 2028 7134 0005 2349	3.000,00 €

LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE  
ZERBITZUAK

250.- HAINBAT GIZARTE  
LARRIALDIETARAKO  
LAGUNTZEN EBAZPENA.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENGO: 111.617,98 €-ko gastua XEDATU, eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako 88 onuradunei obligazioa AITORTU. Onuradunen zerrenda ONARPENA 2. PERTSONA-TALDEA zenbakidun espedienteen jasota dago.

BIGARRENA: UKATZEA UKATZEA-UKO EGITEA 2. PERTSONA-TALDEA zenbakidun espedienteen zerrendatuta dauden 6 eskatzaileari.

HIRUGARRENA: UKO EGITEA UKATZEA-UKO EGITEA 2. PERTSONA-TALDEA zenbakidun espedienteen zerrendatuta dauden 1 eskatzaileari.

HIRIGINTZA, OBRAK ETA  
ZERBITZUAK, ETA INGURUMENA

251.- TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK 2018-05-15EAN  
HARTUTAKO 221. ERABAKIAN  
ANTZEMANDAKO AKATS  
MATERIALA ZUZENTZEA;  
HORREN BITARTEZ, EDUARDO  
COSTE KALEKO 1. ZENBAKIAN  
DAGOEN LOKALA  
ERABERRITZEKO OBRA-  
LIZENTZIA EMAN ZEN.

PRESIDENCIA Y SERVICIOS  
SOCIALES

250.- RESOLUCIÓN DE VARIAS  
SOLICITUDES DE AYUDAS DE  
EMERGENCIA SOCIAL.

A propuesta de la Concejala Responsable del Área de Servicios Sociales, se acordó:

PRIMERO: DISPONER del gasto y RECONOCER obligaciones para el abono de Ayudas de Emergencia Social a 88 beneficiarios/as de las mismas, que se hallan relacionadas/os en el expediente número CONCESION 2º REMESA por un importe total de 111.617,98 €.

SEGUNDO: DENEGAR Ayudas de Emergencia Social a 6 solicitante de la misma, que se hallan relacionados y motivadas en el expediente número DENEGACION-DESISTIMIENTO 2º REMESA.

TERCERO: DAR POR DESISTIDA LA PETICIÓN de 1 solicitante que se hallan relacionados en el expediente número DENEGACION-DESISTIMIENTO 2º REMESA.

URBANISMO, OBRAS Y  
SERVICIOS, Y MEDIO AMBIENTE

251.- SUBSANACIÓN DEL ERROR  
MATERIAL DETECTADO EN EL  
ACUERDO N° 221, DE JGL DE  
FECHA 15.05.2018, POR EL QUE SE  
CONCEDE LICENCIA DE OBRAS  
PARA LA REFORMA DE UN LOCAL  
SITO EN LA C/EDUARDO COSTE, 1.



Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: Zuzendu egingo da Tokiko Gobernu Batzarraren 221. Erabakian atzemandako oker materiala, 2018-05-15eko bilkura arruntean hartua. Erabaki haren bidez, Luis Miguel Huete Aguilar jaunari, GRUPO SUPECO MAXOR, S.L.U. enpresaren ordezkartzan, obra lizentzia eman zitzaion, Eduardo Coste kaleko 1.an (Areetako Gobela kaleko 1 Arekin izkina egiten) dagoen lokala berrizatzeko, "SUPERCOR EXPRESS komenientzia-denda" bihurtzeko, eta enpresa sustatzaile horren izena aldatzeko: GRUPO SUPECO MAXOR, S.L.U.tik SUPERCOR, S.A.ra (IFK: A-78476397). Gainerakoan, erabakiaren edukia ez da aldatuko.

BIGARRENA. Erabaki hau hau eskatzaileari eta Ekonomia Arloari helaraztea, ondorio egokietarako.

**252.- ARENEAZPI 67., 69. ETA 71. ZENBAKIETAN DAUDEN HIGIEZINETAKO FATXADAK ETA ESTALKIAK OSORIK ERABERRITZEKO EMANDAKO LIZENTZIAREN LUZAPENARI EGINDAKO UKO PARTZIALA ONARTZEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO: Subsana el error material detectado en el Acuerdo de Junta de Gobierno Local nº 221, adoptado en sesión ordinaria de fecha 15.05.2018, por el que se concedía a D. Luis Miguel Huete Aguilar, en representación de la mercantil GRUPO SUPECO MAXOR, S.L.U., una licencia de obras para la reforma de un local situado en la calle Eduardo Coste, nº 1, esquina con la calle Gobela, nº 1 A, de Las Arenas, para destinarlo a "Tienda de conveniencia SUPERCOR EXPRESS" y sustituir la denominación de la referida mercantil promotora - GRUPO SUPECO MAXOR, S.L.U. - por SUPERCOR, S.A. (CIF A-78476397), manteniéndose íntegramente el contenido del Acuerdo en todo lo demás.

SEGUNDO. Dar traslado del presente Acuerdo al solicitante, así como al Área Económica, a los efectos oportunos.

**252.- ACEPTAR LA RENUNCIA PARCIAL DE LA LICENCIA CONCEDIDA PARA LA AMPLIACIÓN DE LA LICENCIA OTORGADA PARA LA REHABILITACIÓN INTEGRAL DE FACHADAS Y CUBIERTAS EN LOS INMUEBLES SITOS EN LA C/ARENEAZPI, 67-69-71.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA:

I.- Manuel Hermida Muñiz jaunak, ARENEAZPI 67-69-71ko jabeen erkidegoaren ordezkaritzan, eskatutako uko partziala onartzea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko urriaren 17an hartutako 437. erabakiaren bidez emandako lizentziari dagokionez; lizentzia hori Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 11n hartutako 156. erabakiaren bitartez Algortako Areneazpi kaleko 67., 69. eta 71. zenbakietan dauden higiezinetak fatxadak eta estalkia osorik eraberritzeko xedez emandako lizentzia luzatzeko zen.

Areneazpi kaleko 67., 69. eta 71. zenbakietan dauden higiezinak osorik eraberritzeari buruz aurkeztu diren agiri guztien arabera, egin ez diren lanei dagokie ukoa.

Egiten ari diren lanak nabarmendu dira, 65.712,83 eurokoak (aurreko aurrekontuan 882.157,87 eurokoak izan ziren); honela banakatuta:

Areneazpi 67-----	2.503,25 €
Areneazpi 69-----	5.580,10 €
Areneazpi 71-----	57.629,45€

II.- Obrak amaitzean, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Berritutako fatxaden, gainaldearen eta elementuen koloretako argazkiak.
- Obren ziurtagiria eta azken likidazioa, teknikari eskudun batek sinatuta eta elkargo ofizial egokiak onetsita.
- Egokitasun-ziurtagiri ikus-onesia, dagokion EITn antzemandako hutsuneak zuzentzekoa, III. eranskineko ereduaren arabera

PRIMERO:

I.- Aceptar la renuncia parcial solicitada por D. Manuel Hermida Muñiz en representación de la CCPP ARENEAZPI 67-69-71 respecto de la licencia otorgada por Acuerdo de la Junta de Gobierno local nº 437, de fecha de 17 de octubre del 2017, de ampliación de la concedida por Acuerdo de la Junta de Gobierno local nº 156, de fecha de 11 de abril del 2017 para la rehabilitación integral de fachadas y cubierta de los inmuebles sito en Areneazpi 67-69-71, de Algorta.

De acuerdo con la documentación presentada, correspondiente a toda la rehabilitación de los inmuebles de Areneazpi 67-69-71, la renuncia se corresponde con los trabajos no ejecutados.

Se destacan los trabajos en ejecución, que ascienden a la cantidad de 65.712,83 € (respecto del anterior presupuesto de 882.157,87), desglosados de la siguiente manera:

Areneazpi 67-----	2.503,25 €
Areneazpi 69-----	5.580,10 €
Areneazpi 71-----	57.629,45€

II.- Al finalizar las obras se deberá de presentar la siguiente documentación:

- Fotografías en color de las fachadas, cubierta y elementos reformados.
- Certificado y liquidación final de obra suscritos por técnico competente y visados por el correspondiente colegio oficial.
- Certificado de idoneidad visado de subsanación de deficiencias detectadas en la ITE correspondiente, según modelo del anexo III, en papel, y

(paperean) eta XML artxiboan eta PDF formatuan (CD euskarrian). (EIT Dekretua, 16.4. artikulua).

III.- Berariaz agerrarazten da baimenak eta lizentziak jabetza eskubiderik barik eta inor kaltetu gabe eman beharko direla. (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 211.2. artikulua).

IV. Erabaki hau nahiz haren aurka jarri daitezkeen errekurtsioak eskatzaileari helaraziko zaizkio, ondorio egokiak izan ditzan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ekonomia Arloari, jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan. Halaber, aintzat hartu beharra dago erabaki honek ez dituela lizentziaren eta taseen kontzeptupean eskatu ziren zenbatekoak itzultzeari buruzko auziak konponduko.

**253.- ARENEAZPI 67., 69. ETA 71. ZENBAKIETAN DAUDEN HIGIEZINETAKO FATXADAK ETA ESTALKIAK OSORIK ERABERRITZEKO ETA GUNE PRIVATU ZEIN PUBLIKOAN ALDAMIOAK JARTZEKO LIZENTZIA EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi-arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA.-

I.- Manuel Hermida Muñiz jaunari, ARENEAZPI 67-69-711ko jabeen erkidegoaren ordezkarietan, obra lizentzia ematea, Algortako Areneazpi 67-69-71 zenbakietan dauden

en archivo XML y en formato PDF en soporte CD. (Decreto ITE. Art. 16.4).

III.- Hacer constar expresamente que las autorizaciones y licencias se entenderán otorgadas salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros. (art 211.2 Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo)

IV. Dar traslado del presente Acuerdo así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

SEGUNDO.- Dar traslado del presente Acuerdo al área económica, para su conocimiento y a los efectos oportunos, teniendo en cuenta que el presente acuerdo no resuelve las cuestiones relativas a la devolución de los importes solicitados en concepto de licencia y tasas.

**253.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS DE REHABILITACIÓN INTEGRAL DE FACHADAS Y CUBIERTA DE LOS INMUEBLES SITOS EN LA C/ARENEAZPI 67, 69, 71, ASÍ COMO PARA LA INSTALACIÓN DE ANDAMIOS, PARTE EN ZONA PRIVADA Y PARTE EN ZONA PÚBLICA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.-

I.- Conceder a D. Manuel Hermida Muñiz en representación de la CCPP ARENEAZPI 67-69-71, licencia de obras para rehabilitación integral de fachadas y cubierta de los inmuebles sito en

higiezinetan fatxadak eta gainaldea osorik birgaitzeko, baita aldarnioak jartzeko lizentzia ere, zati bat eremu pribatuan eta beste zati bat eremu publikoan, Areneazpi kaleari begira. Hori guztia, aurkeztutako proiektuaren arabera, EHAEOak 2018-02-09an ikus-onesitakoa eta Gorka Apraiz, Giles Marchel eta Iñigo Barberena jaun arkitektoek idatzitakoa. Era berean, idatzian eskatutakoa zehatz-mehatz bete beharko du. Alkatetzaren urriaren 14ko 4206/2016 Dekretuaren betearazpen-agindua betetzeko egingo dira obrak.

Zehazki, honako obra hauek egingo ditu erkidegoak:

- Fatxadak birgaitzea eta isolamendu termikoaren hobekuntza etxebizitzaren solairuetan, kanpotik aireztatutako fatxadaren bidez, eta gainjanzkia SATEekin (kanpo isolamenduko sistema), eta akabera zeramikoa urbanizaziotik irisgarriak diren beheko solairuko zonetan. Balkoietan ere SATE ipiniko da, eta zona komertzialen fatxadetan, gainjanzki zeramikoa.
- Mantsarden balkoietan inklinatutako saretak kenduko dira. Konponbide berria proposatzen da: beira laminatuzko itxitura, bai mantsardetan bai gainerako solairuetan.
- Leihoetako dintelak konponduko dira.
- Ibili ezin den goiko estalki lau eta inklinatuaren berrikuntza integrala, azalera osoa isolatuz eta iragazgaiztuz.
- Balkoietako zoruak eta karelak birgaitzea, eta eskudel berriak.
  - Baldin eta enpresa batek baino gehiagok hartzen badute parte obran

Areneazpi 67-69-71, de Algorta, así como licencia para instalar andamios, parte en zona privada, y parte en zona pública, orientada a la calle Areneazpi. Todo ello de acuerdo con Proyecto presentado, visado por el COAVN con fecha 09.02.18, redactado por los Arquitectos arquitectos D. Gorka Apraiz, D. Giles Marchel y D. Iñigo Barberena, debiendo de ajustarse enteramente a lo solicitado en su escrito. Las obras se realizan en cumplimiento de la orden de ejecución contenida en el DA 4206/2016, de 14 de octubre.

Las obras a realizar por la comunidad son las siguientes:

- Rehabilitación de las fachadas y mejora del aislamiento térmico en plantas de viviendas, mediante fachada ventilada por el exterior, y un revestimiento con SATE (Sistema de aislamiento exterior) y acabado cerámico en zonas de planta baja que son accesibles desde la urbanización. EN los balcones también se colocará SATE y en las fachadas de las zonas comerciales se colocara un revestimiento cerámico.
- Se retirarán las celosías inclinadas en balcones de mansardas y se plantea una nueva solución mediante un cierre de vidrio laminado tanto en mansardas como en el resto de plantas.
- Se repararán los dinteles de ventanas.
- Reforma integral de la cubierta plana e inclinada no transitable superior, aislando e impermeabilizando la superficie total.
- Rehabilitación de suelos y antepechos de balcones, y nuevas barandillas.
  - Cuando en la ejecución de la obra

burutzapenean, edo empresa eta langile autonomoek edo hainbat langile autonomok, lanei ekin baino lehen edo inguruabar horren berri izan eta berehala, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile bat izendatuko du sustatzaileak obrak iraun bitartean.

- Obrek iraun bitartean, indarrean dauden segurtasun neurriak hartu beharko ditu, inori kalterik ez egiteko, herri bidean materialak jausteagatik, etab.

- Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 215. artikuluan xedatutakoa, baldintza hauek ezarri dira:

- Obrak hilabeteko epean hasi beharko dira, obra-lizentzia jasotzen denetik zenbatzen hasita.

- Lanak egikaritzeko zortzi hilabeteko epea ezarri da, gehienez ere.

